



**XABIER JAUREGI UGARTEMENDIA** jauna, Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko Idazkari dena.

## NEUK ZIURTATUA:

Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko Zuzendaritza Batzordeak, 1994ko urriaren 13an egindako bilkuran, beste zenbaiten artean, ondokoa xedatzen duen erabakia hartu zuen:

### **“BIGARRENA.- KULTUR BAZKUNAREN ADIERAZPENA EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEURRENA ETA LEIOAKO XIII. KONGRESUA DIRELA-ETA.-**

“1.- Aurten Euskaltzaindiaren sorreraren 75. urteurrena ospatu delarik eta Akademia horren XIII. Kongresua egin Leioan, Kultur Bazkunak herritarrei ondoren hitzez hitz transkribituriko adierazpena egitea erabaki du:

a.- Manuel Larramendi Kultur Bazkunak bere zorionik gogotsuena adierazi nahi dio Euskaltzaindiari ospatu berri duen bere sorreraren 75. urteurrenean, bidebatez biziki eskertzen dizkiolarik 75 urte horietan barrena izan duen iharduna eta gure hizkuntzari eskaini dion ardura.

b.- Aldi berean Kultur Bazkunak bere poza azaldu nahi dio Akademia horri Leioan egin berri den XIII. Kongresuagatik. Duela hiru hamarkada euskararen *corpus*aren batasun eta normalkuntzarako Euskaltzaindiak eragin zuen aurrerabide trinkoan garrantzi handiko urratsa izan da aipatu kongresuan eman berria dena, bai euskara arautzeko ahaleginean eragin handiko proposamenak aztertu eta landu direlako, bai bertan izandako giroa abegikor eta eragilea izan delako, baita ere irismen hain itzeleko kongresu batek euskal gizartearenganako hedabideetan behingoagatik zegokion tratamendua izan duelako.

Aipatu urteurren eta XIII. Kongresuaren argitara, Kultur Bazkun honetako bazkideok Erakunde horrengan dugun konfidantza erabat indarberritu da, eta itxaropenez beterik dakusagu XXI. mendeko hastapenek euskararen batasun orekatu eta arautua ekarriko dutela Euskaltzaindiaren eskutik, XX. mendekoek Euskaltzaindiaren beraren sorrera ekarri ziguten bezalaxe. Horregatik da bene-benetakoa gure eskerrona.

c.- Alabaina, kezka bizirik ere badugu, euskararen *corpus*aren gainean ez baizik euskararen *status*ari dagokionez. Euskararen erabilera da -nola zenbatekoa hala nolakoa- bizirik kezkatzen duena Larramendi Kultur Bazkuna. Gure iritziz, herri erakundeei dagozkien egiteko, erantzukizun eta ardurak oso aintzakotzat harturik ere, Euskaltzaindiarena gure gizartean euskararen erabilera normaltzeko ahaleginetan goi-mailako aintzindaritza da, berori baita erakunderik gaitu eta jakitunena xede horri begira iharduteko.

Horrenbestez, Euskaltzaindiarekin bat lerratzen gara euskararen erabilerearen erabateko normalkuntza erdiesteko xedez bere esanetara lan egitearren.

d.- Horrek guztiak, ordea, beste eginpiderik ere eskatzen du. Euskaltzaindiaren bitarteko eta baliabideen ahalmena erakunde horri egotzitako eginkizun eta arduren hein eta irismena adinakoak izatea ezinbesteko gertatzen da. Horrexegatik, Kultur Bazkun honi badagokio, begirune eta apaltasun osoz, Eusko Jaurlaritzari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Batzar Nagusiei iradoki eta eskatzea Euskaltzaindiarekiko asmo eta programek, eta finantzabideek, izan dezatela LEHENTASUN OSOA beren egitarau eta aurrekontuetan, adierazitako xedeak aldian-aldian lortu ahal izateko.

Beraz, adierazpen honen bitartez, begirune osoz, aipatu erakunde publikoei ezinbesteko ahalegin hori handi dezaten eskatzen diegu, nork bere ahalbideei dagokien neurrian.

2.- Honako erabakia jakinaraztea Euskaltzaindiari, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariari, Eusko Legebiltzarreko Lehendakariari, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Lehendakariari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiari.”

Eta dagokionerako ondorioak eragin ditzan, ziurtagiri hau idatzi eta eman dut Lehendakariaren oneritziaz, Asteasun, mila bederatziehunda larogeita hamalauko urriaren hemeretzian.

**EUSKALTZAINDIA.-**  
**Jean HARITSCHELHAR DUHALDE euskaltzainburu jauna.**  
**Plaza Barria, 15. 48.005 BILBO**

KULTUR  
BAZKUNA  
MARRAVENDI



## EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Bilbon, 1994.eko azaroaren 17an



XABIER JAUREGI UGARTEMENDIA jauna  
Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren idazkaria  
Doctor Huizi, 15-1. ezk.  
20140 ANDOAIN

Jaun agurgarria:

Atseginez adierazten dizut erakunde honen Zuzendaritzak joan den ostegunean, Donostiako ordezkartzan egindako bilkuran, beste gai batzuen arten, honako hau aztertu eta onartu zuela:

"4.1. Andoaingo Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren idazkari den Xabier Jauregi Ugartemendia jaunarekin gutuna eta elkarte horren Zuzendaritza Batzordeak aurtengo urriaren 13ean egin duen bilkuraren bigarren erabakiari dagokion ziurtagiria irakurtzen da. Laburbilduz hau dio: a) Kultur Bazkunak Euskaltzaindiaren 75. urteurrena dela eta bere zorionik gogotsuena adierazi; b) Aldi berean, bere poza agertzen du Akademi honek Leioan egin berri duen XIII. Kongresuagatik eta bertan jorratu diren lanengatik. c) Alabaina ere kezka bizia ere agertzen du, euskararen corpusaren gainean ez baizik, euskararen statusari dagokionez. d) Horrek guztiak Euskaltzaindiaren bitarteko eta baliabide ahalmena erakunde honi egotzitako eginkizun eta arduren hein eta irismena hainakoak izatea ezinbestekotzat direla aitortzen du. Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariari, Eusko Legebiltzarreko lehendakariari, Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiari adierazi erakunde



EUSKALTZAINDIA

2

honen asmoak eta programaketak izan dezaten lehentasun osoa bere egitarau eta aurrekontuetan. Zuzendaritzak arretaz eta pozik entzun ditu Larramendi Kultur Bazkunaren erabaki eta iradokizunak eta ahobatez bere esker ona igortzea erabaki. Baita ere hileroko bilkuran euskaltzain osoei horren albiste eman".

Honen berri emanaz batera, har ezazu gure agurrik zintzoena.

J.L. Lizundia - idazkariordea



JAURLARITZAKO  
LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA  
Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA  
DEL GOBIERNO  
Secretaría General de Política Lingüística



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
JAURLARITZAKO LEHENDAKARITZAREN  
IDAZKARITZA  
Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia  
SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA  
DEL GOBIERNO  
Secretaría General de Política Lingüística

1994 ABE. - 7

SARRERA	IRTEERA
Zkia.	Zkia. 9400/1174

**Manuel Larramendi Kultur Bazkuna**  
Xabier Jauregi Ugartemendia jauna  
Dr. Huizi kalea, 15-1.ezk.  
20140 Andoain - Gipuzkoa

Gasteiz, 1994ko abenduaren 5ean

Jauna:

Larramendi Kultur Bazkuneko Zuzendaritza Batzordeak urriaren 13an egindako adierazpenaren berri emanaz Lehendakari jaunari egin berri diozun gutuna jaso eta irakurri dudala adierazi nahi dizut honako honekin.

Besterik gabe, har ezazu nire agurrik zintzoena.

M. Karmen Garmendia Lasa  
Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusia

